


Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,3 gutxitu ziren 2013ko urrian aurreko hilaren aldean

2012ko urriaren aldean eraikuntza kostuak %0,2 gutxitu dira

2013ko urrian, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,3 gutxitu zen aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %0,2, EUSTATEN datuen arabera.



Lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0) eta lehengaien kostuak %0,4 gutxitu dira, aurreko hilaren aldean.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreen bilakaerak norabide berbera baina indar ezberdina izan du euren lehengaien kostuetan, urrian. Etxegintzako lehengaien kostuak %0,3 gutxitu dira eta Obra Zibilekoenak %0,8 aurreko hilaren aldean. Urte arteko bilakaerak: Etxegintzako lehengaien kostuak %0,3 gutxitu dira eta Obra Zibilekoenak %1,8.

Urteko prezioetan (2013ko urria 2012koaren aldean), kontsumitu diren lehengaietan prezio-jaitsiera handienak izandako sektoreak: Petrolio fintzea (%-6,7), Metalurgia (%-5,5), Material elektrikoa (%-1,7). Azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan

dituztenen artean, Ez-metalezko industria (%4,4), Kautxu eta plastikoa (%3,8), eta Makineria (%2,2), nabarmentzen dira, besteren artean.

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK. 2013KO URRIA (p)

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m / m -1	m / m -12	m / abendua
GUZTIRA	103,0	-0,3	-0,2	0,6
ERAIKINAK	102,8	-0,2	0,0	0,6
OBRA ZIBILA	104,1	-0,6	-1,2	0,2
LEHENGAI A	102,8	-0,4	-0,5	0,4
ERAIKINAK	102,5	-0,3	-0,3	0,5
OBRA ZIBILA	104,3	-0,8	-1,8	0,0
LAN-ESKUA	103,6	0,0	1,0	1,0

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua